

Unibertsitate ikasketak dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua ia bikoiztu da hamar urtetan Euskadin

1991n Euskadiko gazteen % 15,2k zituzten unibertsitate ikasketak amaituta, 2001ean, ordea, % 28,3k.



Euskadiko gazteen analisiak, amaitutako ikasketak mailari dagokionez, zera adierazten du: 2001ean % 28,3k unibertsitate ikasketak dituzte, % 26,7k bigarren mailako ikasketak, % 23,8k lehen mailako ikasketak eta % 20,1ek lanbide ikasketak.

Datuen arabera, Euskadiko gazteen ikasle-aroa gero eta gehiago luzatzen ari da. 1991tik 2001era bitarteko datuen eboluzioa aztertuta, gorakada handia antzeman daiteke, bai bigarren mailako ikasketak erdietsi dituztenen kopuruan, bai unibertsitate ikasketak erdietsi dituztenen kopuruan. Lehen mailako ikasketak eta lanbide ikasketak egin dituztenen kopuruak, aldiz, behera egin du. Analfabetismoak eta

ikasketarik gabeko gazteen portzentajeak oso baxua izaten jarraitzen du, %1aren inguruan, alegia.

Ikasleak ez diren Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleak, amaitutako ikasketak-mailaren eta sexuaren arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1991-1996-2001

	1991			1996			2001		
	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.
Guztira	293.746	155.813	137.933	282.241	150.354	131.887	251.042	135.144	115.898
Analfabetoak	1.246	658	588	683	360	323	746	417	329
Ikasketarik gabeak	2.755	1.513	1.242	1.704	929	775	1.825	1.044	781
Lehen mailako ikasketak	131.278	72.228	59.050	100.403	58.987	41.416	59.812	37.376	22.436
Lanbide ikasketak	76.416	43.312	33.104	85.218	48.137	37.081	50.398	29.128	21.270
Bigarren mailako ikasketak	37.293	19.499	17.794	38.146	20.269	17.877	67.148	37.874	29.274
Erdi-go mailako ikasketak	18.344	5.726	12.618	20.968	6.620	14.348	27.107	10.045	17.062
Goi-mailako ikasketak	26.414	12.877	13.537	35.119	15.052	20.067	44.006	19.260	24.746
Guztira	100	53,0	47,0	100	53,3	46,7	100	53,8	46,2
Analfabetoak	0,4	0,2	0,2	0,2	0,1	0,1	0,3	0,2	0,1
Ikasketarik gabeak	0,9	0,5	0,4	0,6	0,3	0,3	0,7	0,4	0,3
Lehen mailako ikasketak	44,7	24,6	20,1	35,6	20,9	14,7	23,8	14,9	8,9
Lanbide ikasketak	26,0	14,7	11,3	30,2	17,1	13,1	20,1	11,6	8,5
Bigarren mailako ikasketak	12,7	6,6	6,1	13,5	7,2	6,3	26,7	15,1	11,7
Erdi-go mailako ikasketak	6,2	1,9	4,3	7,4	2,3	5,1	10,8	4,0	6,8
Goi-mailako ikasketak	9,0	4,4	4,6	12,4	5,3	7,1	17,5	7,7	9,9

Ikasleak ez diren gazteen portzentajeak Euskadiko 15 eta 29 urte bitartekoen kopuru osoa oinarri hartuta

Guztira **55,0** 53,0 47,0 **56,3** 53,3 46,7 **57,8** 53,8 46,2

Iturria: Eustat eta bertan egina.

(Giz.) Gizonezkoak, (Emak.) Emakumezkoak

Amaitutako ikasketetan badago diferentziarik sexuaren aldetik. Izan ere, neskak dira gehienbat unibertsitate ikasketetara heltzen direnak; mutilak, aldiz, lehen eta bigarren mailako ikasketetara eta lanbide ikasketetara heltzen dira.

Esanguratsua da baita ikasketak amaitu dituzten 25 eta 29 urte bitarteko gazteen kopuruak 1996an izan zuen gorakada (% 92,1). Gerora, 2001ean, % 6ko beherakada jasan zuen (% 85,6) eta, horrenbestez, 1991eko portzentajearen (% 86,7) azpitik kokatu zen.

Ikasleak ez diren Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleak, amaitutako ikasketa-mailaren eta adin-taldearen arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1991-1996-2001


	1991			1996			2001		
	15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29
Guztira	33.528	106.981	153.237	21.400	101.695	159.146	13.535	85.958	151.549
Analfabetoak	273	468	505	108	257	318	149	244	353
Ikasketarik gabeak	548	952	1.255	342	523	839	1.237	201	387
Lehen mailako ikasketak	24.388	48.421	58.469	13.845	38.279	48.279	6.536	18.390	34.886
Lanbide ikasketak	4.790	32.217	39.409	3.718	33.988	47.512	176	12.834	37.388
Bigarren mailako ikasketak	3.396	14.120	19.777	3.163	15.046	19.937	5.099	39.417	22.632
Erdi-goi mailako ikasketak	58	5.343	12.943	92	6.862	14.014	136	7.142	19.829
Goi-mailako ikasketak	75	5.460	20.879	132	6.740	28.247	202	7.730	36.074
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Analfabetoak	0,8	0,4	0,3	0,5	0,3	0,2	1,1	0,3	0,2
Ikasketarik gabeak	1,6	0,9	0,8	1,6	0,5	0,5	9,1	0,2	0,3
Lehen mailako ikasketak	72,7	45,3	38,2	64,7	37,6	30,3	48,3	21,4	23,0
Lanbide ikasketak	14,3	30,1	25,7	17,4	33,4	29,9	1,3	14,9	24,7
Bigarren mailako ikasketak	10,1	13,2	12,9	14,8	14,8	12,5	37,7	45,9	14,9
Erdi-goi mailako ikasketak	0,2	5,0	8,4	0,4	6,7	8,8	1,0	8,3	13,1
Goi-mailako ikasketak	0,2	5,1	13,6	0,6	6,6	17,7	1,5	9,0	23,8

Adin-talde bakoitzaren portzentajeak (15-19, 20-24, 25-29) Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopuru osoa oinarri hartuta

Guztira **18,6** **60,5** **86,7** **14,3** **56,8** **92,1** **12,6** **57,2** **85,6**

Iturria: Eustat eta bertan egina.

Euskadin unibertsitate ikasketak dituzten 25 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua handitu da. Izan ere, 25 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 31,6k unibertsitate ikasketak egin dituzte, 1991n baino % 12 gehiagok. Igoera Euskadi osoan antzeman da eta, izatez, hiru Lurralde Historikoetan ere antzekoa izan da.



Iturria: Eustat eta bertan egina

Unibertsitatean ikasten ari direnei dagokienez, datuek aditzera ematen dute unibertsitatean neska gehiago daudela mutilak baino, eta joerak berdintsu jarraitzen du. Gazteak egiten ari diren ikasketei erreparatuz gero, emakumeen erdiak baino gehiagok gizarte eta zuzenbide zientziak hautatzen dituzte; mutilen kasuan, ingeniaritza eta teknologiarekin zerikusia duten ikasketak lehenik eta gizarte eta zuzenbide zientziak gero.

Unibertsitateko ikasleak diren Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleak, ikasketa-arloaren eta sexuaren arabera. Zenbaki absolutuak. 1991-1996-2001

	Guztira	1996		2001		
		Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.
Guztira	85.043	39.737	45.306	80.272	36.393	43.879
Zientzia esperimentalak	6.358	2.833	3.525	5.401	2.100	3.301
Osasun zientziak	3.942	912	3.030	3.666	641	3.025
Gizarte eta zuzenbide zientziak	47.305	17.971	29.334	41.479	14.511	26.968
Ingeniaritza eta teknologia	20.490	15.477	5.013	22.432	16.459	5.973
Giza zientziak	6.948	2.544	4.404	7.294	2.682	4.612

Iturria: Eustat eta bertan egina.

(Giz.) Gizonezkoak, (Emak.) Emakumezkoak

Erlazionaturiko datu-etaulak:

1. taula (pdf, 52 kb).
2. taula (pdf, 37 kb).
3. taula (pdf, 21 kb).

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)